



Kirikiño Egoitzak 20 urte bete ditu!



Santutxuko auzoan kokatutako Kirikiño Egoitza eta Eguneko Zentroak 20 urte bete ditu. Urte hauetan Bizkaiko 782 pertsona nagusi, 518 emakume eta 264 gizon, zaindu ditu, batz besteko adina 85 urte delarik.

Guztion artean, instalazioetan bizi izan den pertsona zaharrena, 2019ko urtarrilean 106 urte bete dituen emakumea izan da, eta oraindik, hiru urte t'erdia pasa ondoren egoitzan jarraitzen du.

Urteurren hau ospatzeko, egoitzak jardunaldia ospatu zuen eta egoiliarak, familiak, lagunak, langileak eta langile ohiak bildu ziren.

20 urteetara heltzea posible egiteaz

gainera, urte luze hauetan gure familiaren parte izan diren pertsona guztiakin berriro elkartzea izan da gure helburua azpimarratu du egoitzak zuzendaria den Azaolak, elkarrekin une zoriontsuak bizi garelako.

Hogeigarren urteurrenean zehar, Kirikiño Egoitza Bizkaiko enplegu sorkuntzaren gunea bihurtu da 500 pertsona baino gehiagori gehien bat emakumei lana ematen, batz besteko iraupena 15 urte delarik.

Ekimen batzuen artean, Kirikiño Egoitzak kalitatea, ingurumena, eta ekonomia kudeatzeko sistema arrakastatsuak garatu ditu, Barrika Barri Egoitzarekin batera, 2011 urtean, Zilarrezko Q lortuz, sari hori eskuratu zuten Euskal Herriko Lehenengo Egoitzak bihurtuz.

Kirikiño Egoitza eta Eguneko Zentroa duela bi hamarkadatik auzoko familien eta pertsonen partaidea da. Bere jarduera pertsona nagusien zainketan datza, beti beren beharrezan eta inguru hurbilena konfiantza hartuz. Azaolak azpimarratzen du Kirikiñon "zahartzarua eta urritasuna arlo soziosanitariotik urrunagora doala eta beste eremu batzuei eragiten diela, hala nola, ikasketak bizitzan zehar, gizartearen parte hartzea, baloreak, kultura eta aisia".

"Urtean zehar, jarduera eta ekimen desberdinak egiten ditugu gure egoitzako atek Santutxu auzora zabalduz. Gure atek ez daude inoiz itxita beti daude zabalik" bukatzen du.



Bide Nagusia 7
Barrika 48650
Telf. 94 677 44 77
Fax. 94 677 44 32
barrikabarri@euskoges.com



Torre Gorostizaga 2 y 4 Bilbao 48004
Telf. 94 412 74 00
Fax. 94 411 08 58
kirikino@euskoges.com



Kirikiñok instalazio berriak estreinatu ditu



Kirikiño etengabeko bilakaeran dago eta egoitzarako egunez egun funtsezkoak diren instalazioak berrizatu ditu, beraien artean, pertsona nagusiarako moldatutako gimnasioa, eta ariketa eta estimulaziorako aretoa.

Instalazio hauek beheko solairuan daude, jantoki, areto nagusi eta aisialdirako gunekin batera. Gimnasio berriak 37 metro karratu ditu eta bertan erabiltzaileek egunero ariketa programak aurrera eraman ditzakete.

Beste aldetik, estimulaziorako aretoa gela handia da azken sorkuntzako pantaila-arbel digitalarekin. Pantaila honetan estimulaziorako jarduera asko proiektatu eta garatzen dira erabiltzaileak kognitiboki bizkor mantentzeko.

Areto honek 20 metro karratu ditu eta 8-10 egoiliarrek erabil dezakete.



Zerbitzu berria Barrika Barrin: mendekotasun 1 (arina)

Barrika Barri egoitzak pauso gehiago eman du talde horri arreta emateko eredu berria martxan jartzean eta mendekotasun 1 edo makaltasun egoeran dauden pertsonentzat Bizikidetzako Unitatea zabaldu du. Barrika Barrin zabalduko Bizikidetzako Unitatea beren kontura oraindik konpontzen diren baina edozein arrazoirengatik makaltasuna duten pertsona nagusientzat da.

Pertsona hauek menpekotasunaren arriskuan daude eta horregatik eguneroko bizitzan laguntza txikia behar dute, baina fisikoki eta kognitiboki ondo daude. Pertsona nagusiek sartzeko eta irtekeko, joateko eta etortzeko autonomia mantendu dezatela nahi da, harreman sozialean jarraituz, baina bizitzaren kalitatearen nariadura motel-tzeko laguntza eta gainbegiratzearekin.





EGINDAKO JARDUNALDI AIPAGARRIAK

Sareen jardunaldia Barrika Barrin

Pasa den maiatzean 300 partaide baino gehiagok parte hartu zuten Barrika Barri Egoitzan antolatutako jardunaldian, pertsona nagusien eta ezgaitasunen balioak agerian jartzeko belaunaldi batzuen zenbait jolas inklusiboen bitartez.

Plentzia Eskolako umeek eta egoitzako nagusiek parte hartu zuten dantzak, olinpiadak eta abar eginez. Jardunaldia Kirikiño eta Barrika Barriren artean antolatu zen.

Hirugarren aldiz ospatzen den jardunaldiaren asmoa beste taldeekin loturak sortzea da garrantzizko

harremanak eraikitzeko. Parte hartzen duten pertsonen interes desberdinak ezagutu behar dira eta integrazio sozial eta zahartze aktiboaren eremuan Enpresaren Gizarte Erantzunaren alde egunez egun egindako apustua erakutsi behar da.

Jardunaldian zehar Plentziako gazteek mendekotasuna duten pertsonen lekuan jarri zuten saioak eta oztopoz betetako zirkuitua egiteko, horrela, beste egoera batzuen artean, menpekotasun fisikoa eta begietako gaitasun eskasa edukitzean nabaritzen dena berez ezagutzeko. Jardunaldian 1.450 euroko txeki solidarioa (Minbizia duten Bizkaiko umeen Gurasoen Elkarteak) ASPANOVAS elkarteari eman zioten. Zentro bietako nagusiek erabaki zuten nori eman txekia.



Diru kopuru hori ihaz burututako zenbait ekimenetan bildu da hala nola, azoka solidario, diru-bilketa, belaunaldien arteko jarduera eta politika, gizarte, kirol eta kultura eremuetako pertsona nabarmenekin batera egindako Egutegi solidarioa.

All-impiadak Santutxun

Dibertsitate funtzional eta menpekotasuna duten pertsonen taldeek kirol saioen zirkuitua egin zuten Bilbon, lehen hezkuntzako ikasleekin batera, txiki-ek talde horiek duten zailtasun fisikoak ezagutu ditzaten.

Guztira, giro dibertigarri eta aldarrikatzailean 150 partaide baino gehiago elkartu ziren menpekotasun eta ezgaitasuna duten pertsona guztien balioa agerian jartzeko, talde horien gainean erortzen den estigma kentzeko asmotan. Jardunaldia Berrio-Otxoa ikaste-

Jardunaldia Berrio-Otxoa ikaste-

guntzarekin. Balioetako heziketaren bitartez zahartze aktiboaren sustapena eta dibertsitate funtzionala taldeen normalizazioa bultzatzea helburutzat hartzen duen sortu berria den Gizarte Sortzen Foroak susper-tuta izan da. Gizarte Sortzen Foroaren jardueraren izena "II ALL-IMPIADAS" izan da eta Barrikako Barrika Barri eta Santutxuko Kirikiño Egoitza, Berrio-Otxoa

Ikastetxe eta Almi Hezkuntzen Zentroaren ekimena esker burutu da. Bigarren edizioa izan da.



GURE ERAGIKETA GOGORREN ALBISTEEN ARGAZKIAK



Kirikiñoeko egoiliarra den Maria Luisaren 106 urteak, berri garrantzitsua izan ziren albistegi nagusietan. Bere ustez, hainbeste urte bizi izatearen arrazoia "ez ezkontzea" izan da. Azalpen honek oihartzun handia eduki zuen komunikabideetan.

Dantzetzeko arratsaldeak Barrika Barrin eta Kirikiñon. Gure egoitzetan jarduera asko eta dibertigarriak antolatzen ditugu egoiliar eta familiarentzat.

Ondo pasatzen dute eta aktiboki zahartzen dira.



Beroaren aurka gure egoiliarrek prestatutako fruituen zuku gozoak hartzen ditugu. Gainera Kirikiñon eta Barrika Barrin izugarritzko beroa dagoenean oso egokiak diren kanpoko instalazioak ditugu.

Guztien Artean Eginez Foroaren edizio berriak Santutxuko Merkatarien Elkarteko presidentea, Begoña de la Cruz, eta Bilboko Bco-ol Hostel-en lana saritu ditu. Galdakaoko Ospitaleko Onkologoen Elkarteak 1.200 euroko laguntza jaso zuen.

